

Erakundeetako eta ekonomia eta gizarte arloko ordezkariak izan dira ospakizunean

EROSKI-K 50. URTEURRENA OSPATU DU IRUÑEAN

- Kontsumitzaileengandik hurbil egotea, kontsumo arduratsuagoa eta iraunkorragoa sustatzea eta etengabe berritzea eta egokitzen joatea dira haren hurrengo erronkak
- EROSKI bere erro eta balio sozialak nabarmendu ditu, eta aipatu du kontsumitzaileekin konektatzeko eta haien beharretara egokitzeko lehentasuna duela
- EROSKI funtsezko eragilea da Nafarroan nekazaritzako elikagaien sektorea iraunarazteko
- Haren presidente Agustin Markaidek gogorarazi du EROSKI pertsonez osatutako kooperazio proiektu bat dela, eta barne indarragatik eta gizartean ekarpenak egiteko duen gaitasunagatik nabarmentzen dela

Iruñea. 2019ko martxoaren 28a.- [EROSKI](#)k 50. urteurrena ospatu du gaur arratsaldean. Aurten egin asmo dituen ospakizunetako bat izan da gaurko zeremonia. Nafarroako Baluarte biltzar jauregi eta auditoriumean egin dute, eta EROSKIko ordezkariak eta Nafarroako erakundeetako ordezkariak gain, hor izan da Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikoko lehen presidenteorde eta sailburua, Manuel Ayerdi Olaizola.

Agustin Markaide EROSKIko presidentek eskerrak eman dizkie *"bertan direnei eta falta direnei beren babesa eman izana, ez bakarrik gaurko egun honetan, baita 50 urte luze hauetan ere"*. Jatorriko urteak gogorarazi ditu, non zenbait kontsumo kooperatiba txiki bat egin baitzuten. Sorrerakoa *"eguneroko oinarrizko premien erantzun sozial eta kolektibo bat izan zen. Sustatzaileek gizakiaren eta kooperazioaren gaitasunean sinesten zuten behar horiek hobeki betetzeko. EROSKI garai hartan dagoeneko berritu zuen bere burua, nola eta zazpi kooperatiba horiek elkarrengandik bereizten zituzten gauzetan baino indar handiagoa jarriz batzen zituzten horietan"*, azaldu du, eta *"jaio eta gutxira, kooperatibak lehen denda ireki zuen, 1971n, Altsasun, eta handik hilabete batzuetara Txantrean"*.

Jaio zenetik, EROSKI funtsezko eragilea izan da Nafarroan nekazaritzako elikagaien sektorean, eta urtean 220 milioi eurotik gora ere erosi izan die hornitzaile nafarrei.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Nafarroako sektore ekonomiko guztietatik, EROSKI 3.300 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta hemengo 500 hornitzaile ingurarekin dihardu.

Denbora honetan, EROSKI beti egon da konektatuta kontsumitzaileekin, haien premiei erantzuteko gizarteak eboluzionatu ahala. Eboluzio horretan, leial eutsi dio bere erro eta jatorri kooperatiboari, eta horrek berak balio izan dio bere xedeak gaurkotzeko, *"hau da, herritarren osasuna eta ongizatea hobetzea, eta hori bat etortzea gero eta kontsumo arduratsuago eta iraunkorrago batekin"*, esan du Markaidek.

EROSKIko presidentek, halaber, estimatu ditu *"bere erro eta balio sozialei eutsita EROSKIri 50 urte betetzen lagundu dioten guztiak. Ahalegin horri esker, proiektu kooperatiboa indartu egin da, eta toki bat egin du etorkizunean"*, zeinak ezaugarri izango baititu hurbiltasuna, kontsumo arduratsuagoa eta iraunkorragoa, berrikuntza eta etengabeko egokitzapena. *"EROSKIri dagokio bere proiektua eraldatzea, bere bazkideen eta gizartearen ongizate iraunkorra bilatuz, eta, horretarako, behar beste aldiz berrituko dugu geure burua"*, amaitu du Markaidek.

EROSKIko Kontseilu Erretoreko presidente Leire Mugerza Garatek hauxe esan du: *"EROSKI erakutsi du asmo handinahitsuak dituen proiektu sozioenpresariala dela eta bere kudeaketa eredu kooperatiboa egokitzen jakin duela historiak eboluzionatu ahala, baina beti jakin du, hala berean, erroetara itzultzen, hor baitago gure izatearen funtsa"*, eta EROSKIren oinarrian dauden ezaugarriak gogorarazi ditu, hau da, ekitatea, harremanen humanizazioa eta *"eskubideetan bidezkoagoa eta aukeretan berdinzaleagoa den gizarte baterantz egiteko asmo irmoa"*.

Mugerzak hauxe nabarmendu du: *"EROSKI ospakizun hau merezi duten pertsonen proiektua da. Horiek dira 50 urte honetan izan garenaren balioa, eta datozen berrogeita hamarretan izango garenarena"*.

EROSKI Nafarroan

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Nafarroako elikagaien banaketan. 111 saltokiko sare komertziala du Foru Erkidegoan; besteren artean, hipermerkatu eta supermerkatu propio nahiz frankiziatuak, eta dibertsifikazio dendak; horiez gain, on line supermerkatua; alde horretatik, bakarra da erosketak Nafarroako edozein etxetara eraman ditzakeena. EROSKI Clubak 180.000 Bezero Bazkide ditu Nafarroan. 1.643 profesionaletik gorako taldea du, eta horietatik mila inguru kooperatibako bazkideak dira.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)